

'Triton XL' robotak hidrokarbuo ihes txiki bat atzeman du 'Erika'-ren popan

Orain petroliontziaaren branka arakatuko du, isuri hori noizkoa den jakiteko

Erredakzioa / Donostia

Ur azpian 120 metrora, *Erika* ontziaren popa aztertzen jardun zuen *Triton XL* robotak atzo, barruan duen petrolio isurtzen ari den ala

ez jakiteko. Eskualde Atlantikoko Itsas Prefeturak atzo baieztatu zuenez, robotak hidrokarbuo ihes txiki bat atzeman du ontziaren atzeko zatian. Halaber, ontziak omen duen beste zulo txiki batetik haize burbui-

lak ateratzen dira. Ur azpian eta Bretainiako kostaldetik 70 kilometrora dagoen ontziaren popa aztertu ondoren, gaur branka miatzen hasiko da, hark ere isuririk baduen ziurtatzeko.

ABENDUAREN 12an, Bretainiako kostaldetik 70 kilometrora hondoratu zen *Erika* petroliontzia, eta 10.000 tona erregai isuri zituen itsasora. Itsasora isuritako erregaiak kalte ekologiko larriak eragin ditu, hark sortutako marea beltza kostalderaino heldu baita azken asteotan.

Hala ere, hondoratu zen ontziaren popan eta brankan oraindik ere 20.000 tona erregai daude, eta azken egunotan aztertzen ari dira ea haiek ere itsasora iristen ari diren. Ilbeltzaren 1ean *Abyssub* robotarekin hasi ziren ikertzen ontziaren atzeko zatia, baina hark ez zuen deus ere aurkitu. Adituek azaldu zutenenez, robot hori ez zen egokiena horrelako lanak egiteko, «astunegia eta mugaitzen zaila» baita.

Ondoren, *Achille* robota erabili zuten azterketa egiteko, baina hark ez zuen balio sakoneko azterketa egiteko, haren egileek berek —Comexa— aitortu zuten.

Igandean *Triton XL* sartu zuten itsas azpira hondoan dagoen ontzi zatia ikertzeko, eta atzo arratsaldean *Abbeille Supporter* ontziak atera zuen, eta hidrokarbuo ihesaren berria zabaldu zen. *Tri-*

Ikerketak 'Erika' ontzian



ton XL horrelako bilatze lanetarako oso aproposa da, itsas azpian dauden petrolio iturrietan erabiltzen baitute.

Azken asteotan arrantzaleek adierazi izan dute ontzia dagoen lekutik gertu erregai orban beltzak daudela, eta atzo egindako aurkikuntzak azalduko luke haien esana. Behin popa aztertuta, «aha-

lik eta lasterren» brankarekin hasiko dira, operazioaren arduradunek azaldu dutenez. Branka ere ur azpian dago, popatik hamar bat kilometrora.

Bestalde, hondoratu zen ontziko kapitainaren abokatuak atzo esan zuen bere bezeroak «egin beharrekoa» egin zuela, hondoratu baino

hilabete lehenago jakinarazi baitzion armadoreari ontziaren konpartimentuan korrosioa zegoela. Hala ere, armadoreak bidaia egiteko aginduz Krun Mathur kapitainari.

Euskal Herritik urrun oraindik

Bestalde, Espainiako Itsas Salbamenduko kideek lanean segitzen dute marea beltzaren arrastoren bat Gipuzkoa-Bizkaietara eta Espainiara iritsiko balitz.

Hala ere, marea beltzaren arrasto gertuena Bizkaiko kostaldetik 360 kilometrora dagoela azaldu dute, Yeu uhartean. Iturri berek azaldu dute, gainera, ontziak isuritako 10.000 tona erregai gehiena Frantziako kostaldera heldu dela jadanik. Izan ere, petrolio zati berriak ez baitira iristen jadanik kostaldera. Hala ere, oraindik petrolio zatia garbitzen ari dira kostaldean.

Egun, badaezpadako dispositibo bat prest du Espainiako Itsas Salbamenduak Kanturi itsasoko kostan. Horren barruan, zazpi kilometroko hesia prest du marea beltza helduko balitz hari aurre egiteko.

Elikagaien gaineko segurtasuna bermatzeko liburu zuria kaleratuko du gaur Europako Batzordeak

■ Kontsumitzailearen ongizatea bermatzeko, segurtasun agentzia sortzea proposatuko du Bruselak

Erredakzioa / Donostia

AZKEN URTEOTAN Europan gertatu diren elikagai aferei erantzuteko kaleratuko du gaur Europako Batzordeak Elikagaien segurtasunerako liburu zuria. 1996an *behi eroen* afera hasi zenetik, hainbat izan dira eskandaluak eta gizartearen haiek sortutako alarma. Horri guztiari erantzutea du helburu liburuak. Argitalpenak kontsumitzailearen ongizatea bermatzeko segurtasun agentzia

bat sortzea proposatzen du. Agentzia berri hori 2002. urtean jarriko litzateke martxan.

Liburuaren xedea, gainera, elikadura munduan zeresana duten pertsona guztien artean gogoeta eragitea da.

Gaurko aurkezpenaren ondoren, Europako Batzordeak uztailaren aurkezten duen lege proposamena egiteari ekingo dio. Bruselak, martxoan baino lehen, herrialdeei euren iritzia plazara dezaten eskatuko die. Agen-

tzia berriak, ordea, aholku emaila gisa funtzionatuko du soilik, erabakiak hartzeko gaitasunik izan gabe.

Neurri zorrotzagoak ekoizleentzat

Era berean, elikagaien kutsadura kontrolatzeko neurri berriak proposatu ditu Europako Batzordeak. Haien arabera, ganaduarentzat zuzendutako produktuen ekoizleak argi eta garbi adierazi beharko du etiketan

osagai guztien berri. Proposamen hori aurrera aterako balitz, ekoizleek osagai guztien xehetasunak eman beharko litzateke kontsumitzaileei, erabilitako kantitateak barne. Orain arte nahikoa zen produktuaren berri ematea, osagai guztietan sakondu beharrik izan gabe.

Dena den, litekeena da Europako Batzordeak egindako proposamenen aurka azaltzea erakundeko kide diren hainbat herrialde.

laburrean

■ Euskararen Plan Estrategikoaren inguruko alegazioak jartzeko epea zabaldu dute

Euskararen Plan Estrategikoaren diseinua abenduan amaitu zen. Gizarte eragile guztiek euskararen egoeraren gaineko diagnostikoa egin, helburuak zehaztu eta konpromisoak hartu dituzte. Aurrerantzean, finkatutako konpromiso horietatik martxan zein jarriko dituzten erabaki beharko dute sinatzaileek. Aurretik, ordea, alegazioak aurkezteko epe bat jarri zuten, hil honen 15a bitartekoa. Alabaina, alegazio ugari jaso dituztela ikusita, hilaren 31 arte luzatzea erabaki du Kontseiluak.

■ 2000 efektuaren ondorioz, itxi egin behar izan dute Santurtziko liburutegia

SANTURTZIKO liburutegi zentrala urtarrilaren 3tik aurrera itxita egon da, sistema informatikoak ez baitzituen behar bezala prestatuak 2000 efektuaren ondorioz aurre egiteko, Jose Miguel Jerez EAJko zinegotziak salatu duenez. Jerezek Udaleko Kultura Saileko arduradunak kritikatu ditu, eta aurreikuspenik egin gabe jardutea leporatu die.

■ Nafarroako Gobernuak eta ELA ez dira ados jarri administrazio publikoei buruz

ELA sindikatuaren arabera, Nafarroako Gobernuak ez dago prest homologia eta berrenkuadrizioetarako boltsa ekonomikoaz hitz egiteko, eta horregatik ez dute akordio iritsi oraindik. Gobernuak eta ELA bilera izan zuten atzo. ELAren ustez, Gobernuak diru sail bat jarri behar du urte luzeetan iraun duen taldeen arteko ezberdintasun bidegabeak konponatzeko.

■ Giza Zientzietako titulu berria eskainiko diete adinekoiei EHUK eta Kutxak

EHUK eta Kutxak Giza Zientzietako titulu berria sortu dute adineko pertsonentzat. 55 urtetik gorako erretiratu, etxekoandre edo langabeak izango dute titulu hori eskuratzeko aukera. Urtarrilaren 31n hasiko da ikasturtea, eta hiru urte iraungo dute ikasketek.